

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARGANDOÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Lehiaketa, kontzejuaren etxebizitza bat errentan emateko

Argandoñako Kontzejuko Batzarrak, 2019ko uztailaren 10ean, onespena eman zion baldintza ekonomiko-administratiboan eta berariazko baldintzen agiriari, zeinen bidez arautuko baita kontzeju horrek duen hiri ondasun higiezin baten errentamendua esleitzeko lehiaketa. Higiezin landa eraikin bat da, etxebizitzatarako erabilera duena, lehengo maisu-maistren etxea zenaren 7. zenbakian. Horiek horrela, aipatutako agiria jendaurrean jarriko da hamabost egun naturalez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan.

Aldi berean, lehiaketa iragartzen da, ondoren adierazitako zehaztapenen arabera. Dena den, lizitazioa atzeratu egingo da beharrezkoa denean, hau da, baldintza agiriaren aurka erreklamazioak aurkeztuz gero.

1. Erakunde esleipenduna: Argandoñako Kontzejua.

2. Lehiaketaren xedea:

a) Xedearen azalpena: hiri ondasun higiezin baten errentamendua, Kontzejuaren jabetzako etxebizitza batena, errentadunak etxebizitza iraunkor baten premia asebetetzeko.

b) Kokapena: lehengo maisu-maistren etxea, 7. zenbakia, Argandoña (Araba).

c) Iraupena: hiru urte, luzatzeko aukerarekin, baldintzen agirian ezarritakoaren arabera.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko modua: lehiaketa.

4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua eta esleipen irizpideak:

a) Lizitazioaren oinarritzko prezioa: 7200 euro urtean, eta zenbateko horretatik gorako eskaintzak baino ezin izango dira aurkeztu.

b) Esleipen irizpideak: baldintza agirian zehaztutakoak.

5. Bermeak: behin-behinekoa, kontratuaren zenbatekoaren ehuneko hiru, hots, 216 euro.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea: 11. zenbakiko etxea, Argandoñan, 10:30etik 19:00etara, aurretik 608878218 telefonora deituta.

7. Kontratistaren berariazko betekizunak: baldintza agirian zehaztutakoak.

8. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: hamabost egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: baldintza agirian aipatzen direnak.

c) Aurkezteko lekua: 11. zenbakiko etxea, Argandoñan (Araba), 10:30etik 19:00etara, aurretik 608878218 telefonora deituta.

9. Eskaintzak irekitzea: Argandoñako Kontzejuko aretoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo igandean, 12:00etan.

Argandoña, 2019ko uztailaren 29a

*Errejidore-lehendakaria*

*LUIS MARÍA FERNÁNDEZ DE MENDÍA*